



# Profesionalentzat eskuliburua

## Egonaldiak Empresetan

2018ko otsailaren 19,20,21,22 eta 23an

Ezagutu Aukeratzeko - Enpresetako Egonaldiak 2017-2018 edizioa

# Ongietorria:

EGAZ Txorierrri , Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Ekonomia Sustatzeko Zerbitsua, programako zure parte-hartzea eskertzen du " Ezagutzea Aukeratzeko – Egonaldiak"  
Zure parte-hartzearekin :

Zure enpresa / organizazioaren ikusgarritasuna handituko duzu hezkuntza eta enpresen komunitatean



Lan merkatuari aurre egiteko prestatuago dagoen belaunaldia osatzen lagunduko duzu, zure esperientzia, ezagutzak eta aholku onei esker, gazte baten ikaste prozesuan balio erantsia direna.



Gazte bat lagunduko duzu gaitasun eta trebetasun garrantzitsuak eskuratzen, eta horiek oso baligarriak izango zaizkio bere bizitza profesionalean

Interesean , maitasunarengan eta egonaldira jartzen diozun arduraldian, programaren arrakasta hein handi batean mendea dago.

Eskerrik asko

# Zer konpetentzia eta trebetasunak egonaldietan garatzen dira?

- Autonomia
- Ekimen pertsonala
- Lidergoa
- Talde-lana
- Erabakiak Hartu
- Norbera ezagutza
- Etengabeko bizitza osoan zehar hezkuntza
- Helburuak hezartzea
- Oztopoak gainditzea
- Zure etorkizun profesionala kontzientzia hartzea

## Nola antolatuko da egonaldia?

9.00 – Enpresara irakaslearen heduera.

9:00 - 9:30 – Aurkezpenak.

9:30 - 13:30 – Programatutako jardueren garapena.


13.30 h -14.00 h – Azkeneko bilera eta jardueraren ebaluazio

Programa hau alda daiteke bizibide bakoitzeko eta egonaldiko espezifikotasunei arreta ipiniz

Programaren helburua da gazteari erakustea nolakoa den ohiko lanaldia, baina sektorearen inguruko ikuspuntu globala ere emango zaio, etorkizunean izan ditzakeen aukerak azalduko zaizkio eta, ahal den neurrian, hezkuntzaren eta lanaren arteko lotura egingo da. Era berean, lortu nahi diren helburuak erdiesteko ahaleginaren eta lanaren kulturaren balioa azpimarratu nahi da. Ez da enpresara edo organizaziora egindako bisitaldi gidatua.

Profesional bakoitzak 1-3 ikasle artean hartu ahal izango ditu, lanegun bakoitzeko

# Zure papela, profesional bezala:



Egonaldia bukatzerakoan programaren azkeneko ebaluazioa bete ezazu ikaslearen ondoan eta bidaliezaguzu: E-posta( [ezagutu@txorierri.eu](mailto:ezagutu@txorierri.eu))

## Inscribatuta zaude, eta orain, zer?

- Hautatua izateak esleitutako egonaldia eta inplikazioarekin eta arrakasta izan dadila beharrezko maitasunarekin parte hartzea.
- Programa antolatzen duen erakundeak eskubidea dauka aurkeztutako eskaeren arabera profesional egokirik gabe geratzen diren egonaldiak bertan behera uzteko.
- Erakunde antolatzaileak eskubidea dauka “profesional-ikasle” esleipena aldatzeko, behar izanez gero, aldeei jakinarazi eta haiekin adostu ondoren.

➤ **Erantzukizunak:** Erakunde antolatzaileak zein egonaldia egingo duen enpresak ez dute inolako erantzukizunik izango ikasleak bere kabuz erabakitzen badu aipatutako programara ez joatea eta/edo bere gurasoek aurreikusita zutenearen kontra beste edozein arrazoirengatik joaten ez bada.

# Esperientzia hau probetxugarria izateko gomendioak:

## Esleitutako ikaslearekiko lehen kontaktua :

Eskuliburu honen ondoan Egonaldi-Fitxa daukazu : Egonaldian hartzen duzun ikaslearen gaineko informazioa. Ikaslea, Martxoko lehen astean zehar, zurekin (email-a bidearekin) harremanetan jarriko da egonaldiaren datuak zehazteko.

- Komeni da ikasleari lanaldiaren alderdi garrantzitsuenen berri ematea: ordutegia, jarduerak eta orokorrak.
- Komeni da zuk ere zeure burua aurkeztea eta informazioa partekatzea, ikaslea lasaiago ibil dadin bere burua erosoago aurki dezan galderak egitean.
- Ez ahaztu, lehenengo mezu elektronikoan behintzat, helbide honetarako kopia ezartzeaz, komunikazioa gertatu dela ziurtatzeko: [ezagutu@txorierri.eu](mailto:ezagutu@txorierri.eu)

# Esperientzia hau probetxugarria izateko gomendioak:

## Egonaldian zehar:

- **Antolatu zure agenda eta prestatu ikaslearekin batera egiteko jarduerak.** Eman informazioa zure saileko langileei, jardueraren jakinaren gainean egon daitezten. Horrela, jardueraren baitan egongo dira, eta ikasleei harrera egiteaz gain, euren zereginetan ere parte hartuko dute. Gomendatzen da gazteak egongo diren bestelako antolakuntza-arloak eta horien arduradunak aldeztatik hautatzea, egunak aurreikusitako jariorotasuna izan dezan. Ziurtatu jardueretako batek ere ez dakarrela arriskurik ikasleentzat.
- **Aurkeztu zure burua.** Esaiozu zure izena eta lanbidea. Esaiozu zeure burua anfitrioi izateko aurkeztu duzula, uste duzulako funtsezkoa dela gazteek zuzenean egiaztatu ahal izatea ikastetxean ikasitakoaren garrantzia. Gonbidatu ezazu jardunaldian galderak egitera.



## Esperientzia hau probetxugarria izateko gomendioak:

- **Egonaldian zehar:**
- **Gonbidatu ezazu bere curriculuma berrikustera.** Azal iezaiozu curriculuma lan-emaileek erabiltzen dutela euren langile izan daitezkeen hezkuntzari eta esperientziari buruzko datuak ezagutzeko. Aholka iezaiezu prestakuntza jasotzeko eta ikasteko aukera etengabe balia dezatela euren bizitzako aro guztietan. Gonbidatu ezazu berrikustera, ondoren hitz egiteko tresna gisa erabiltzeko.
- **Interesak eta denbora-pasak:** ikasleak lasaiago egon ohi dira ezagutzen dutenaz hitz egitean eta pertsona heldu batek ebaluatzen ez dituenean. Gonbida ezazu bere denbora-pasa eta interesez hitz egitera. Gogoratu bere erantzunak, ondoren egunean zehar erabiltzeko.
- **Boluntariotza:** zoriondu ezazu, halako lanen bat egin badu. Pertsona asko boluntariotzaren bidez hasi ziren euren lanbidean.

# Esperientzia hau probetxugarria izateko gomendioak:

## Egonaldian Zehar:

- **Bokazio-interesak:** Informa zaitez interesatzen zaizkion lanbideen inguruan, eta geldi zaitez egoera zehatz bakoitzean. Aintzat hartuta ikasle batzuek oraindik ere ez dakitela zein karrera hautatu, saiatu kontzientziarazten batzuetan lanbide egokia hautatzeak eskatzen duen denboraren inguruan.
- **Lan-esperientzia:** Hitz egiozu gai honetaz sustatu nahian. Ikasleak lan-esparruan jardueraren bat egin badu, galdetu ea zer gustatu zitzaien, zer ikasi zuen, etab. egindako lanean. Partekatu gauzatutako ekintzetan hartutako esperientzia eta nabarmendu bereziki konstantziaren eta ahaleginaren balioa.
- **Erakarri bere arreta adibideen bidez:** oro har, ikasleei kosta egiten zaie arretari eustea tarte luzeetan. Bada, euren arreta erakartzeko erabilgarria da diskurtsoak zehaztea, deskribatzen ari zarenaren adibide zehatzekin.

# Esperientzia hau probetxugarria izateko gomendioak:

**Asegurua:** Egonaldien programan parte hartzen duten ikasleak EGAZ Txorierriren kontuko aseguruarekin babestuta daude. Aseguru horrek jarduera garatu bitartean jaso daitezkeen gertakariak estaltzen ditu eta ikasleek nahitaez emango dute bere gurasoetako edo tutoreetako baimeneko, baita bere NAN o pasaportearen ere, programaren parte-hartzerako. Ala ere egonaldiaren garapenean zeharreko behargabeko arriskueta ez erortzea gomendatzen da.

**Tokialdatzeak :** Ikaslearen egonaldiaren lekurako joan-etorria ikaslearen beraren erantzukizuna da baina, profesionalak zuen lantokira sartzeko ikasleentzako erraztasun posible guztiak ematea komenigarria izango litzateke, bereziki, enpresetan gutxiago sartzen errazak garraio publikoan.

# Esperientzia hau probetxugarria izateko gomendioak:

## DBLO:

- Parte hartzen duten ikasleek baimena bete dute argazkiak egin ahal izateko. Argazki horiek programaren dokumentazioan eta hedapenean bakarrik erabiliko dira. ( I. eranskina)
- Erakunde antolatzaileak eta/edo parte hartzen duten babesleek eta prestakuntza ematen duen edozein zentrok eskubidea izango dute ikasleen irudiak hartzeko, erreproduzitzeko eta argitaratzeko, banaka zein taldeka izan, programan parte hartzearekin lotura badute horren zabalkunde emateko inongo geografi mugarik gabe. Edozein komunikabide, euskarri edo formatutan agertzeko ez da denbora-mugarik egongo, eta zabalkunde hori publizitateko, merkataritzako edo antzeko xede baterako (murriztapenik gabe agertzeko: Internet, prentsa, egunkari, aldizkari, TB, bideo komertzialak eta publizitatekoak, memoriak) erabili dela uste denean ere, kasu horietan ez baita inolako mugarik egongo lurralde edo denbora aldetik.

# Esperientzia hau probetxugarria izateko gomendioak:

➤ EGAZ Txorierritik animatzen zaituztegu jardueraren argazki edo beste euskarri grafiko batzuk egitea, beti ere lehenago enpresan baimena eskatu eta hoiek gero guri igortzea ([ezagutu@txorierrri.eu](mailto:ezagutu@txorierrri.eu)), ezinezkoa baitzagu jarduerak gertatzen diren toki guztietan egotea.

## ➤ **Komunikazioak:**

➤ Garrantzitsua da zure egonaldiari esleitutako ikaslearekin egiten duzun komunikazio guztia kopiaz (CC-ez) egonaldiaren kudeaketa zuzenerako programaren ([ezagutu@txorierrivalley.com-en](mailto:ezagutu@txorierrivalley.com-en)) koordinazio orokorrera bidaltzea.

➤ Ikaslearen eta profesionalaren arteko harremanean gertatzen den edozein jokabide desegokik programan izandako parte hartzea etengo du.

➤ Egonaldian eragina duen gertaeraren bat jasoz gero, alait lasterren jakinarazi beharko zaie honako hauei, erregistratuta gera dadin eta konpondu ahal izateko:

Egaz Txorierrri(T.:944536370; M: 607761186)

E-mail: [ezagutu@txorierrri.eu](mailto:ezagutu@txorierrri.eu).



Harremanetarako:

**Koordinazio orokorra :**  
Ezagutu Aukeratzeko -Egonaldiak Programa  
[ezagutu@txorierri.eu](mailto:ezagutu@txorierri.eu)  
T:94.453.63.70

Helbidea: EGAZ TXORIERRI  
Txorierri Etorbidea 46- Berreteaga poligonoa 13A  
48150 –Sondika- Bizkaia